



BERRERAIKITZEKO FUNTSAK: LORTU ONDOREN, BANATU EGIN BEHAR DIRA

Euskal Herriko Federalistak Elkartek, COVID 19 pandemia dela-eta, Europar Batasuneko susperraldirako funtsen inguruko hausnarketa bultzatzen jarraitzen du. Ildo horretatik, Espainia Federalaren aldeko Elkartearen barruan, Funtsen kudeaketaz eta eginkizun horretan autonomia-erkidegoek hartuko duten arduraz, online mintegi bat eragin du, Alternativas Fundazioaren laguntzarekin burutuko dena.

Gure herrialdeak krisialdi honen ondorioak arintzeko funts europarretatik jasoko dituen laguntzen kopurua kudeatzea azken denboran aurre egin behar izan dion erronkarik handienetakoa da. Aldi berean, 140.000 milioi euro horiek gure herrialdearen eskuetan jartzen dute aukera ezin hobea baliabide publikoak kudeatzean gaitasun eta eraginkortasun federala bilakatzeko.

Funts horien kudeaketa nolakoa izan daitekeen aztertzeko, solaskide izango dugu Manuel de la Rocha Vázquez, Espainiako Gobernuako Ekonomia Gaietarako eta G20rako idazkari nagusia, zeinek elkarrizketa bat izango baitu Diego López Garrido Alternativas Fundazioko presidenteorde exekutiboarekin. Nicolás Sartorius, Espainia Federal baten aldeko elkartearen presidentea izango da elkarrizketaren moderatzaile. Ekitaldian parte hartuko dute, baita ere, **zuzenean**, Espainia Federalaren aldeko Elkartearen osatzen duten lurraldeen elkarteetako ordezkariak; Luis Miguel Pariza izango da Euskal Herriko Federalisten elkartearen aldetik parte hartuko duena.

Gogoratuko duzue, Luis Miguel Pariza izan zen, halaber, duela hilabete bat Euskal Herriko Federalistak eta UEF-Euskadi elkarteek Europako Errekuperazio Funtsari buruz, Europako hainbat espezialisten parte hartzearekin, antolatutako online mintegiaren moderatzailea. Mintegi hori [osorik](#) ikus dezakezue gure elkarteak You Tuben duen kanalean. Era berean, El Correo egunkarian duela gutxi argitaratutako [iritzi-artikulu](#) bat ere eskura duzue gure webguneko [hemerotekan](#).

Urtarrilaren **13eko 16:00etako webinar hau zuzenean** jarraitu ahal izateko Espainia Federal baten aldeko elkartearen [webgunean](#) agertzen diren jarraibideak bete behar dira.

Jaso ezazu agur bero bat, eta gure nahirik beroena Urte Berri honetan pertsonen osasunari eta sistema ekonomikoari gogorki eragiten dien egungo krisi larria gaituzte eta Estatuaren erreforma federalean eta Europaren eraikuntzan aurrera egin dezagun.